

EGUNERAKETA

SUSTAPEN PLANA 2026

Euskadiko Elikagaien Industria

- Sarrera
- Sustapen Planaren helburua
- Estatuko zein nazioarteko azokak
- Azoken egutegia
- Parte hartzeko baldintzak
- Jardunbide Egokien Kodea
- Enpresekin harremanetan egoteko tresna

2026 SUSTAPEN PLANAREN SARRERA

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2026rako aurreikusitako Sustapen Plana aurkezten du.

Dokumentuak Euskadiko Elikagaien Industriaren 2026rako Sustapen Plana definitzen du, non 2026ko ekitaldirako aurreikusten diren azokak eta sustapen ekintzak zehazten dira.

HELBURUAK

- Euskadiko elikagaien industriako produktuak sustatzea.
- Azken urteetan sustapen ekintzak egin izan diren merkatuetan presente egotea bultzatzea sektoreak eskatutako formatu berri interesgarriak gehituta.
- Euskal enpresei nazioartera zabaltzen laguntzea.
- Estatuan egon daitezkeen merkatu berriak irekitzea esportatzen hasi nahi duten enpresa txikientzat.

ESTATUKO ZEIN NAZIOARTEKO AZOKAK

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZIren bitartez, estatuan eta nazioartean egiten diren elikagai eta edarien azoketara joaten jarraitzearen aldeko apustua egiten du.

Ondoren aipatzen diren azoketara joango gara, betiere izena ematen duten enpresen kopurua bertan parte hartzea justifikatzeko nahikoa bada.

GURE ARDOAK	Edariak	2026ko urtarrilak 26
BARCELONA WINE WEEK (Bartzelona)	Edariak	2026ko otsailak 2 - 4
WINE PARIS (Paris)	Edariak	2026ko otsailak 9 - 11
PROWEIN DÜSSELDORF (Düsseldorf)	Edariak	2026ko martxoak 15 - 17
ALIMENTARIA (Bartzelona)	Elikadura eta edariak	2026ko martxoak 23 - 26
GOURMETS (Madril)	Elikadura eta edariak	2026ko apirilak 13 - 16
SEAFOOD (Barcelona)	Elikadura	2026ko apirilak 21 - 23
TUTTOFOOD (Milan)	Elikadura	2026ko maiatzak 11 - 14
CONXEMAR (Vigo)	Elikadura	2026ko urriak 6 - 8
SIAL PARIS (París)	Elikadura	2026ko urriak 17 - 21

MISIO KOMERTZIALAK ETA ALDERANTZIZKOAK ETA MERKATU BERRIAK

Azoketan parte hartzeaz gain, edarien sektorerako misio komertzialak ere antolatuko dira, Japonia, Hego Korea, Mexiko eta Kanada bezalako merkatu interesgarriekin.

Misio zuzen bat egingo da Mexikora 2026ko apirilaren 20tik 24ra, eta alderantzizko misio bat Japoniako edarien sektoreko profesionalentzat maiatzaren 18tik 22ra. Misio horiek indartu egiten dute 2025ean bi merkatu horietan egindako apustua, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila gauzatzen ari den politikari jarraiki. Politika horren arabera, interesekotzat jotako herrialdeetan merkataritza-ekintza puntualak egiteaz gain, apustua indartzeko ekintza multzo bat antolatu behar da.

Berrikuntza gisa, Seulgo (Hego Korea) SIWSE azokara joango da lehen aldiz ekainaren 18tik 20ra, eta alderantzizko merkataritza-misio bat antolatu da Kanadarekin irailaren 28tik urriaren 2ra.

Urriaren 19tik 23ra egingo da Japoniarako zuzeneko misioa, eta azaroaren 16tik 20ra alderantzizko misio bat egingo da Hego Koreako merkatuko profesionalekin.

ZUZENEKO MISIOA MEXIKO	2026ko apirilak 20 - 24
ALDERANTZIZKO MISIOA JAPONIA	2026ko maiatzak 18 - 22
SIWSE SEUL AZOKA (HEGO KOREA)	2026ko ekainak 18 - 20
ALDERANTZIZKO MISIOA KANADA	2026ko irailak 28 - urriak 2
ZUZENEKO MISIOA JAPONIA	2026ko urriak 19 - 23
ALDERANTZIZKO MISIOA HEGO KOREA	2026ko azaroak 16 - 20

***OHARTARAZPENA:** baliteke 2026ko bigarren seihilekorako aurreikusitako misio komertzialek oraindik data-alaketaren bat izatea.

2026 AZOKEN EGUTEGIA

Urtarrila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

 GURE ARDOAK

Otsaila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

 BARCELONA WINE WEEK
 WINE PARÍS

Martxoa

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

 PROWEIN DUSSELDORF
 ALIMENTARIA

Apirila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

 GOURMETS
 ZUZENeko MISIOA MEXIKO
 SEAFOOD BARCELONA

Maiatza

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

 TUTTO FOOD
 ALDERANTZIZKO MISIOA JAPONIA

Ekaina

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

 SIWSE SEUL

Uztaila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Abuztua

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Iraila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	1	2	

 ALDERANTZIZKO MISIOA KANADA

Urria

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

 SIAL PARÍS
 ZUZENeko MISIOA JAPONIA

Azaroa

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

 ALDERANTZIZKO MISIOA
HEGOALDEKO KOREA

Abendua

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Lg
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Jarduera hauetan parte har dezakete soil-soilik egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten **enpresa ekoizleek**, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude. Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

Hona hemen **2026ko Sustapen Planaren** dokumentu honetan planteatzen diren ekintzetan parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko dirulaguntzetarako egingo den sailkapena. Sailkapena behar bezala esleitzeko, ezinbestekoa izango da enpresek euren lehengaiaren jatorria egiaztatzea, zinpeko deklarazio baten bidez. Azoka bakoitzean izena ematean aurkeztu beharko da zinpeko deklarazio hori.

ENPRESEN SAILKAPENA

1. MOTAKOA

Batez ere **Euskadiko lehengaiz** hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

2. MOTAKOA

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkziorik egon ez, eta **Euskaditik kanpoko lehengaiak** erabiltzen dituzten enpresak.

3. MOTAKOA

Batez ere **Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ** diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere.

EUSKADIKO ELIKADURA SISTEMAREN JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

Eusko Jaurlaritzak elikadura katea osatzen duten enpresa guztiak gonbidatzen ditu **Euskadiko Elikadura-Sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodera** atxikitzaera.

Jardunbide Egokien Kode honek Euskadiko Elikaduraren balio-katean parte hartzen duten eragile guztien harreman komertzialak oinarritzeko printzipioak ezartzen ditu katearen beraren jasangarritasun soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa sustatzeko helburuarekin.

Sustapen-planean aurkezten diren sustapen-ekintzetan parte hartzen duten enpresak hautatzeko, deialdi bakoitzean adierazitako inskripzio-dokumentu guztiak jasotzeko hurrenkerari jarraituko zaio, eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura-sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.

ENPRESEKIN HARREMANETAN EGOTEKO TRESNA

2026 urterako proposatzen diren jarduerekin lotura duten jakinarazpen guztiak eskuratzeko esteka hau erabili daiteke: **www.euskadi.eus/elikagaiensustapena**. Helbide horretan azoka bakoitzaren deialdia zein egoeratan dagoen eta deialdi bakoitzari dagozkion izena emateko epeak azaltzen dira.